

MATERIALISMO HISTERIKOA

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA
www.adurlarrea.com

Zatitzaileak



UXUE APAOLAZA LARREA

Bileretan denetarik elkartzen gara, eta bilerek berek nolaketzen gaituzte unean, bakoitzak bere rola izaten baitu, bere boteretroa (edo haren falta), adina, bizitzako momentua. Baina beti-beti daude isiltzen direnak. Letek kantatzen zigun handitzean ikasiko genuela isilik egoteak zenbat balio duen. Ez zekien ondo. Isilik dagoenak, baina, gauza asko esan ditzake, eta batzuetan autobabesa da, beste batena... eta askotan, koldarkeria geurekoa. Ondo. Arazoa hasten da koldarkeria zintzotasunarekin nahasten denean, eta, ez dakit, Leteren emakumeei zuzendutako sehaska kanta horretan ere hala den, isiltasuna goraiatzaren hasten denean arazorik ematen ez duen bazterrekoa eredutzeko. Isilik guapago zaude hori. Eredutzeko, zatitzen ez duen bazterrekoa.

Leku bakoitzean modu batera esaten zaio deserosotasunari. Espainian "polarizatu" hitzaren zaleak dira orain: ezkerreko norbaitek zapalkuntzari zapalkuntza, eta zapaltzaileari zapaltzaile esaten dienean gertatzen da. Zatitu, Espainia, mutur askotatik zatitzen da, edo lurrazpitik, gorpuak atera nahi badira. Feminismoa da zatitzaile trebatua leku guztietan, gizartea den bilera zabal honetan, emakumeak etxean isilik geratzen ez garenetik. Zatitzen ditu soziedadeak, herriko festak, familiak, langile-klasea, bertsolaritza eta, laster, Euskal Herria. Migranteek iristearekin zatitzen dute, zer desberdin desatseginak, batez ere, bando arriskutsuenera pasatzen badira. Pobreenera. Argentinako kazetari ezkertiar bat ikusi nuen kezkatuta, herrialdean aplikatzen ari diren politikek eragiten dituzten pobreak eta heriotzek gizartea zatituko ote duten. Gu ere batzuetan erosoago isiltzen badira.

Izan ere, badira isilean hiltzen diren pobreak, isilean hiltzen diren bazterrak. Zer jatorrak. ●

EXCUSATIO NON PETITA...



Zezenak

Zezenketa gehiagorik ez da izango Karrantzan, herritarrek hala erabakita. Herri galdeketa egin dute: jaietan zezenketak izatearen kontra bozkatu dute 343 bizilagunek, eta 252k alde. 2013an ere egin zuten galdeketa, eta aldeko botoak irabazi zuen.

Otsoak

Otsoaren babesa murrizteko pausoa eman du Europar Batasunak, espeziearen kudeaketa malgutzeta eta landa-eremuko interesak babestea argudiatuta. Erakunde ekologistek salatu dute ehiztarien interesak lehenetsi dituztela.

Israeli boikota

Gabonei begira, Carrefourri boikota egiteko dei egin du BDZ taldeak, "mahaian sionistatik ez esertzeko". Boikotaren eraginez, supermerkatu kate frantziarrak behera egin du salmentetan, eta berriki Jordanian saltokiak itxi ditu.